
ELIZONDOKO
BESTAK
2025
UZTAILAK 24-28
JON VERDE ©

# Herriari

## ELIZONDO, BIZIRAUTEN DUEN HERRIA, BATZEN GAITUZTEN BESTAK, MEREZI DITUGUN MOMENTIKOAK

Elizondoko bestak herriaren alderdirik hoberenaren isla izan beharko lirateke: bere bizilagun zintzo eta leialak, bere kultura eta folklorea, bere elkartasuna eta tradizionalak bezain aldakorrak diren bere doinu eta dantzak. Dantza horiek milaka urteko zuhaitzak ekartzen dizkigute burura, sustrai sendo eta zaharrekin lurrari tinko eusten direnak baina urtero-urtero hostoak aldatu eta loratzen direnak, ezinbertzean garai berrietara egokituz. "Aitzinepasa!" xuxurlatzen dute plazan dauden dantzariek, tradizioari eutsiz. Azken finean hori da egin beharko genukeena, "aitzinera egin", egokitu, lurrari sustrai zaharrekin tinko eutsiz, nondik gatozen ahaztu gabe baina, bizitzen segitu ahal izateko, derrigorrez egokitu eta eboluzionatuz.

Zoriontasuna, errespetua, maitasuna, musika eta dantzak. Horiek izan beharko lukete 108 ordu luze irauten duten gure besta kuttun hauetako gonbidatu bakarrak. Baina egia da, anitzetan, hainbat zorigaitzen maskara bihurtzen direla: denboraren iragateak bakarrik sendatuko duen zauri irekiena; min ematen duen ausentzia horiena (aipamen berezia Mayirentzat, aurten txupinazoa bere etxe berritik adituko baitu); inposatutako isiltasun eta ebatsitako eskubide eta lurrena, Erdi Arokoa dirudien gehiegizko indar hierarkikoa baliatuz; eta inolako zigorrik gabe segitzen duten han eta **hemengo** erasotzaileena, biktimen oinazea bikoiztuz.

Enpresa handiak eta gizarteko jenderik boteretsuena inurriak bagina bezala gure gainetik igarotzen den garaiotan, ezin genituen aipatu gabe utzi bidegabekeria horiek jasan dituzten eta jasaten segitzen dituztenak. Oraindik ere gogoan dugu Losyseko langileen greba amaigabea, beren lan baldintzen hobekuntza minimo bat eskatuz; edo Benito Menni Zentroko langileen egungo egoera; edo Baztango gazte batzuek, interes komuna interes pribatuei lehenesteagatik, gureak diren lur eta bizimoduak defendatze hutsagatik, jaso dituzten salaketa eta zigor larriak. Zuei denoi eskermile! Eskermile zuen ereduarekin gure inspirazio iturri izateagatik eta baztandar guztion onurarako diren eskubideak lortzeagatik. Aurten, baldintza penagarri horiek salatu eta ikustarazteko, Benito Menniko, Osasun zentroko eta Fco. Joaquin Iriarte adinekoen egoitzako langileek hirugarren altxaferoa botako dute. AUPA ZUEK!

Orain, hain astindua, kolpatua eta banatua dagoen bailarara erauntsiaren ondorengo barealdia datorrela dirudienean, txipa aldatu, ideologiak eta etsaitasunak alde batera utzi eta armairuetatik blusak, zapiak eta irribarre onenak ateratzeko garaia da. Hala ere, nahitaez gogoratzera behartuak gaude herritarren jarreraren oinarrian egon beharko liratekeen arau batzuk, zoritxarrez errealitate izatetik arras urrun daudenak. Alkateak, kargodunek eta Besta Komisioko kideek ez dugu inola ere jarrera matxista, sexista, LGTBIQA+fobiko, razista edo xenofoborik onartuko, eta Elizondo ilunduko duen ekaitzik gabeko besta horiekin amesten segituko dugu.

Izan ere, une ilunenetan ere, herri honek aitzinera begiratzen eta modu kolektiboan oztopoak gainditzen jakin izan du. 2014ko uztailaren 4ko aste ilun hartan (10.urteurrena izan zen iaz) agerian gelditu zen. Elizondoko karrikak elkartasun uholde batez bete ziren eta "Herri bat gara" lelopean garaitezinak garela erakutsi genuen. Eta hori da, hain zuzen, segitu beharreko bidea! Denek laguntzen dutenean

# 19
LARUNBATA

12:00
**Elizondoko bestetako III. igeriketa txapelketa**
*Giltxaurdi igerilekuan*

# 24
ORTZEGUNA
*Bezpera*

12:00
**Txupinazoa eta Baztan-zopak**
*Plazan*

Elizondoko haurrek besten inguruko marrazkiak egin zituzten. Ekhi Olondriz Mitxeltorenak txupinazoa botako du. Benito Menniko María Jesús Marco eta Maria de los Ángeles Janarizek bigarren txupinazoa botako du. Benito Menniko, osasun zentroko eta Fco. Joaquin Iriarte adinekoen egoitzako langileak hirugarren altxaferoarekin omenduak izanen dira. ZORIONAK DENEI!

*OHARRA: BAZTAN ZOPETAKO PLATERAK DENEN ARTEAN ORDAINTZEN DITUGU. BERAZ, ITZULI FABOREZ!!*

*AURTEN EZ DA EDALONTZIRIK EMANEN. EKARRI ZUEN EDALONTZI BERRERABILGARRIA ETXETIK, FABOREZ!!*

Ondotik,
**Karrikadantza. Konpartsa, txistulariak, gaitariak eta Tuku-Tuku Txaranga**

UDALETXEA, JAIME URRUTIA, ZIGA PLAZA, TXOKOTO, BRAULIO IRIARTE, OPOKA, SANTIAGO KARRIKA, "Francisco Joaquín Iriarte" ADINEKOEN EGOITZA

16:00
**Haurrentzako jolasak Kulki kultur kirolak-ekin**
*Kuarteleko zelaian*

18:00
**Elektropoteo Sasix & Puyix**
*Mendi ostatutik abiatuta*

MENDI, TXOKOTO, GLORIA, LABAIEN, EGUZKIALDE, BETI-JAI, SOBRINO, PLAZA

19:30
**Karrikadantza. Konpartsa, txistulariak, gaitariak eta banda**

HERRIKO ETXEA, JAIME URRUTIA, ZIGA PLAZA, ELIZA, SANTIAGO KARRIKA, HERRIKO PLAZA , JAIME URRUTIA, "Francisco Joaquín Iriarte" ADINEKOEN EGOITZA

20:00
**Salbea**
*Elizan*

Elizondoko Abesbatzak, Isabel Lacarren zuzendaritzapean, Eslavaren Salbea eta Santiagoren Ereserkia kantatuko ditu, organoan Imanol Elizasu Lasa, eta "Recreo de Elizondo" musika bandaren laguntza izanen duelarik.

Ondotik,
**Karrikadantza eta Erraldoien Dantza**
*Plazan*

21:30
**Tuku Tuku Txaranga**
*Herrian barrena*

22:00
**Kontzertuak**
*Plazan*
***Andoni Ollokiegi***
***Kaparrak***
***Sedientos de Cumbia***
***Malakias MX3***
***DJ Aiakate***

22:30
**Lurrikara Gau Elektronikoa**
*Merkatuko zelaian*

# 25

## ORTZIRALA
*Santio eguna*

9:30
**Argi soinuak**

10:30
**Karrikadantza**

HERRIKO ETXEA, JAIME URRUTIA, HERRIKO PLAZA, ELIZA

11:00
**Meza nagusia**
*Elizan*

Elizondoko Abesbatzak, Isabel Lacarren zuzendaritzapean, organoan Imanol Elizasu Lasa eta "Recreo de Elizondo" musika Bandaren laguntzaz "Misa de Eslava" eskeiniko du.

12:00
**Karrikadantza**

ELIZA, SANTIAGO KARRIKA, HERRIKO PLAZA, JAIME URRUTIA, "Francisco Joaquín Iriarte" ADINEKOEN EGOITZA

12:30
**Plazako ekitaldia**
***Mutildantzak***
***Erraldoien dantza Elizondoko Bandaren laguntzaz***
***Luntx Herrikoia***

*AURTEN EZ DA EDALONTZIRIK EMANEN. EKARRI ZUEN EDALONTZI BERRERABILGARRIA ETXETIK, FABOREZ!!*

17:00
**Kiki, Koko eta Moko pailazoak**
*Plazan*

17:30
**Elutxa Txaranga**
*Herrian barrena*

17:30
**Herri Kirolak. Nafarroako Herriz Herriko Txapelketaren jardunaldia**
*Iriarte pilotalekuan*

***Partaideak: Araxes, Arraioz, Etxarri-Aranatz eta Irurita***

Lehenengo proba konbinatua: **Lokotx biltzea, zaku lasterketa, aizkora, korrika eta arpana.**

Bigarren proba konbinatua: **txinga-eramatea eta ingude altxatzea.**

20:30
**Dantza herrikoiak**
*Ziga plazan*

Ondotik,
**Mutildantzak**
*Plazan*

22:30
**Txingones de la Rencle mariatxiak**
*Plazan*

Ondotik,
**Dantzaldia Olgetan-ekin**
*Plazan*

# 26

## LARUNBATA

*Haur eta gazte eguna*

9:30
**Argi soinuak**
*Beartzunen*

11:00
**Konpartsarekin itzulia**
"Francisco Joaquín Iriarte" ADINEKOEN EGOITZA, SANTIAGO KARRIKA, OPOKA, MENDINUETA, BENITO MENI ZENTROA, MERKATUZELAI, LEGATE, XALBADOR, BRAULIO IRIARTE, TXOKOTO, SANTIAGO, MARIA AZPILKUETA, LANBIDE ESKOLA

11:00-14:00
**Uretako puzgarriak**
*Giltxaurdi igerilekuan*

SARRERA DOHAINIK IZANEN DA.

*OHARRA: SAUNAN ETA GIMNASIOAN SARTZEA DEBEKATUA EGONEN DA.*

14:00
**Kuadrillen bazkaria**
*Kuarteleko zelaian*

Bazkarian 2€ ordaindu beharko dira buruko, materialaren alokairurako.

*BAKOITZAK BERE ZABORRA BILDU DEZALA!!!*
*EKARRI ZUEN EDALONTZI BERRERABILGARRIA ETXETIK!!!*

16:30-19:30
**Aurpegi Margoketa**
*Ahaztuen plazan*

17:00
**Ginkana**
*Plazan*

Ondotik,
**Txokolatada**
*Ahaztuen plazan*

18:00
**Pilota Jaialdia**
*Baztan pilotalekuan*

***Peio Etxeberria-Morgaetxeberria***
vs ***Dario-Eskiroz***

***Zabala-Mariezkurrena***
vs ***Ezkurdia-Iztueta***

18:00
**Poteoa Hamarru Elektrottarangarekin**
*Elkartez elkarte parketik abiatuta*

*EKARRI ZUEN EDALONTZI BERRERABILGARRIA ETXETIK!!!*

20:30
**Dantza herrikoiak**
*Ziga plazan*

Ondotik,
**Mutildantzak**
*Plazan*

23:00
**Kontzertuak**
*Plazan*

***Dupla***
***Zilibito records***
***DJ Fifi & Fefa***

9:30
**Argi soinuak**

11:00
**Konpartsarekin itzulia**

LANBIDE ESKOLA, AKULLEGI, SANTIAGO, DATUZELAI, SANTIAGO, SASKAITZ PLAZA, SANTIAGO, BEREKOTXEA GOTZAIA, PAULARENA,HERRIKO PLAZA, PEDRO AXULAR, GILTXAURDI, GALARTZA, "Francisco Joaquín Iriarte" ADINEKOEN EGOITZA

11:00
**Ludoteka**
*Iriarte pilotalekuan*

11:30
**Txaruta Pilota Elkartearen partidua. Infantilen finala.**
*Baztan pilotalekuan*

12:00
**"Recreo de Elizondo" musika bandaren emanaldia**
*Elizako belardian*

16:00
**Ludoteka**
*Iriarte pilotalekuan*

16:30
**Elizondoko XIII. Mus txapelketa**
*Xalbador karrikan*

FALFARAK ELKARTEAK ANTOLATUA
(Adin guztietarako)

*OHARRA: PAREJAK ELIMINATU AHALA MAHAI ETA BANKUAK HUSTU BEHARKO DIRA ETA MERKATUKO ZELAIRA ERAMAN.*

17:00
**Elutxa Txaranga**
*Herrian barrena*

17:00
**Menditarrak**
*Francisco Joaquín Iriarte adinekoen egoitzan*

17:30
**Elizondoko III. Boneta Jaurtiketa txapelketa**
*Giltxaurdi karrikan*

# 27

## IGANDEA
*Adinekoen eguna*

19:00
**Bertso saioa**
*Plazan*

Euria egiten badu, Arizkunenean izanen da.

*Gai jartzailea:*
***Xabier Maia Etxeberria***

*Bertsolariak:*
***Saioa Alkaiza Guallar***
***Amets Arazallus Antia***
***Maddalen Arzallus Antia***
***Julen Zelaieta Iriarte***

20:30
**Dantza herrikoiak**
*Ziga plazan*

Ondotik,
**Mutildantzak**
*Plazan*

22:30
**Kontzertuak**
*Plazan*
***Janus Lester***
***Bizphiru pelau***

# 28

## ASTELEHENA

*Herriaren eguna*

9:30

**Argi soinuak**

11:00

**Konpartsarekin itzulia**

HERRIKO ETXEA, JAIME URRUTIA, OPOKA, ERLATEGI, BAZTAN BERRI, MAURIXIO ETA FELIX PLAZA, ABARTAN, XALBADOR KARRIKA, GILTXAURDI, "Francisco Joaquín Iriarte" ADINEKOEN EGOITZA

12:30

**Elutxa Txaranga**

*Herrian barrena*

14:00

**Zikiro Jatea**

*Iriarte pilotalekuan*

Zikiroko txartelak uztailak 17an ortzeguna arratsaldeko 19:30etan Herriko Etxean salgai.

Herria ez da arduradun eginen adinez txikikoak zikirora joaten badira.

***AURTEN EZ DA BAXERARIK PARATUKO. EKARRI ZUEN BAXERA BERRERABILGARRIA ETXETIK, FABOREZ!!***

Ondotik,

**Elutxa Txarangarekin poteoa**

FRONTOIA, TXOKOTO, GLORIA, SAIOA, LABAIEN, SOBRINO, MENDI, PLAZA

18:00

**Hauspolariek**

*Plazan*

21:00

**Mutildantzak eta dantza herrikoiak**

*Plazan*

00:00

**Gizajoa ni eta Kalejira, Elutxa Txarangarekin**

*Plazatik abiatuta*

PLAZA, INTZA, TXOKOTO, SAIOA, LABAIEN, EGUZKIALDE, BETI-JAI, MENDI, PLAZA

Ondotik,

**DJ Piek**

*Plazan*

# ERASO SEXISTARIK EZ!

## ERASOA JASAN BADUZU ETA LAGUNTZA BEHAR BADUZU

1. DEITU **112ra**
   (ZAURI LARRIAK BADITUZU EDOTA SALAKETA PARATU NAHI BADUZU)
2. INFORMAZIOA **016an**

## ERASO BAT IDENTIFIKATZEN BADUZU

1. **BABESTU** ERASOTUA
2. **ERRESPETATU** BERE IRITZIA ETA NAHIAK
3. **KOORDINATU**
4. **IDENTIFIKATU** ERASOTZAILEA
5. **SAIHESTU** ETA MOZTU ZURRUMURRUAK

- HURBILDU
- ADITU
- EZ EPAITU
- GALDETU **LAGUNTZA NAHI DUEN**

**BAI**

- DEITU 112ra
- POLIZIA AGERTU ETA ERASOTZAILEA IDENTIFIKATU ARTIO GELDITU
- HERRI SALAKETA ANTOLATZEKO, UDALAREKIN EDO MUGIMENDU FEMINISTAREKIN KOORDINATU

**EZ**

- AHOLKULARITZA 016an
- ZURE LAGUNTZA ESKAINI BAINA EZ INSISTITU

BORTXAKETA BAT (EDO BORTXAKETA SAIAKERA) BADA, ERRAN ARROPAZ EZ ALDATZEKO, EZ DADILA GARBITU; AHO-BORTXAKETA IZAN BADA, EZ DEZALA EZ EDAN EZ JAN, FROGAK EZ DESAGERTZEKO.

# NO A LAS AGRESIONES SEXISTAS!

## SI HAS SIDO AGREDIDA Y NECESITAS AYUDA

1. LLAMA AL **112**
   (EN CASO DE HERIDAS GRAVES Y/O PARA DENUNCIAR)
2. INFORMACIÓN **016**

## SI IDENTIFICAS UNA AGRESIÓN

1. **PROTEGE** A LA AGREDIDA
2. **RESPETA** SU OPINIÓN Y DESEOS
3. **COORDINA**
4. **IDENTIFICA** AL AGRESOR
5. **EVITA** Y CORTA RUMORES

- ACÉRCATE
- ESCUCHA
- NO JUZGUES
- PREGUNTA **SI QUIERE AYUDA**

**SI**

- LLAMA AL 112
- QUÉDATE HASTA QUE APAREZCA LA POLICÍA E IDENTIFICA AL AGRESOR
- COORDINACIÓN CON EL AYUNTAMIENTO O EL MOVIMIENTO FEMINISTA PARA ARTICULAR LA RESPUESTA SOCIAL

**NO**

- ASESORAMIENTO 016
- OFRECE TU APOYO PERO NO INSISTAS

SI SE TRATA DE UNA VIOLACIÓN (O INTENTO DE VIOLACIÓN), DI QUE NO SE CAMBIE DE ROPA, QUE NO SE LAVE; SI SE TRATA DE VIOLACIÓN ORAL, QUE NO BEBA NI COMA, PARA QUE NO DESAPAREZCAN LAS PRUEBAS.

Baztango Udala

Genero Indarkeriaren aurkako estatu-ituna